



2026ko maiatzaren 11n MUGIKORTASUNEKO, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUko honako foru agindu hau eman da:

Behin betiko onestea IV - Balenciaga Hirigintza Eremuko g.00 lurzatiari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Jakin dezazun eta dagozkion bidezko ondorioak izan ditzan igortzen dizut.

Donostia, departamentuko idazkari teknikoa

Miren Itziar Miner Canflanca



GHI-100/25-P08

**MUGIKORTASUNEKO, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO FORU
DIPUTATUAREN FORU AGINDUA, "IV - BALENCIAGA HIRIGINTZA EREMUKO G.00
LURZATIARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA" BEHIN BETIKO
ONARTZEKOA.**

Udal izapideak egin ondoren, Foru Aldundiari bidali zaio Getariako "IV - Balenciaga Hirigintza Eremuko g.00 lurzatiari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren" espedientea, behin betiko onar dezan.

Espedientea Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak sustatu du, eta "IV - Balenciaga" hirigintza eremuaren antolamendu-baldintzak aldatzea du xede, zuzkidura-bizitokiak eta txandakako aparkalekuak egin ahal izateko, eta eremuaren irisgarritasunean hobekuntzak egiteko.

Planak 527 m²-ko azalera duen lurzati bat antolatzen du zehatz-mehatz. Lurzati hori "g.00 komunitate-ekipamendu" gisa kalifikatuta dago, eta Getariako herrigunean dago, Herrerietako kalearen eta Kristobal Balentziaga kalearen artean. Gaur egun, bertan, bi solairuko eraikin bat dago, 475 m²-ko azalera erabilgarria duena, eta Eskualtxeta Kultur Gunea izeneko ekipamendua hartzen du.

Proposatutako antolamenduak IV.3 azpieroemua sortzen du, eta eraikin berri bat hartuko du, bi erdisotoko, beheko solairuko eta hiru goiko solairuko eraikuntza-profilarekin. Goiko solairu horietarako proposatutako eraikigarritasuna 2.030 m² (s) -koa da sestra gainean, eta parametro horri esker 20 zuzkidura-bizitoki sortu ahal izango dira.

Sestra azpiko eraikigarritasunari dagokionez (920 m² (s)), udalaren ondare-titulartasuneko txandakako aparkaleku gisa erabiliko da, eta proposatutako sestrek aukera emango dute IV.2 azpieroemu mugakidean gaur egun dagoen aparkalekuarekin lotzeko, harekin sarbidea partekatuko bailukete.

Azkenik, eta ingurunearen irisgarritasuna hobetzeko helburu orokorrarekin bat etorritik, lurzatiaren ekialdean bide-zortasuneko espazio bat sortzen da, udalaren irisgarritasun-planaren esparruan azkenean hartuko den irtenbide zehatza integratu ahal izateko.

Getariako Udalak hasiera eman zion espedientearen izapidetzeari, eta ingurumen-organoari eskatu zion planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko. Izapidetzea amaitzeko, Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen, 2025eko otsailaren 4an. Txosten horretan adierazienez, Planak ez zuen ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar, ez zuelako eragin negatibo nabarmenik ingurumenean, betiere ingurumen-txosten estrategikoan adierazitako babesteko eta zuzentzeko neurriak txertatzen baziren dokumentuan.

Getariako Udalean ingurumen-organoaren erantzuna jaso ondoren, 2025eko uztailaren 29ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion 2025eko martxoko dokumentuari, eta jendaurreko informazio-aldian ez zen alegaziorik aurkeztu.

Ondoren, Udalak, 2025eko urriaren 28ko osoko bilkuran, dokumentua behin-behinean



GHI-100/25-P08

onestea erabaki zuen, eta, 2025eko urriaren 31n, espedienteari sarrera erregistroa eman zitzaion Foru Aldundian behin betiko onar zedin.

Hala ere, Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiaren 2025eko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez, dokumentua Getariako Udalari itzultzea ebatzi zen, espedientearen zuzendu zitezten ebazpen horretan adierazten ziren gaiak, kostaldeen eta telekomunikazioen arloan eskumen sektorialak dituzten administrazioek egindako txostenak eransteari buruzkoak.

Bitartean, dokumentua Ingurumen Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren esku jarri zen, zeinak, 2026ko apirilaren 9an, aldeko txostena eman zuen dokumentua ingurumen-txosten estrategikora egokitzeari buruz.

Getariako Udalak, bere aldetik, Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiaren ebazpen horretan adierazitako txosten sektorialak eskatu zituen. Telekomunikazioen gaiari dagokionez, Telekomunikazioen, Azpiegitura Digitalen eta Segurtasun Digitalaren Idazkaritza Nagusiak 2026ko urtarrilaren 29an lehen txostena eman zuen, kontrakoa. 2026ko otsailean dokumentazio osagarria idatzi zen, hirigintza-araudiaren 4. artikuluari idazketa berria eman ziona, eta Idazkaritza horrek aldeko txostena eman zuen 2026ko martxoaren 5ean.

Kostaldeein buruzko legerian aurreikusitako txostena eskatuta, Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman zuen joan den apirilaren 4an.

Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiaren 2025eko abenduaren 2ko Ebazpenean adierazitako gai guztiak modu horretan zuzendu ondoren, espedientea berriro erregistratu zen Foru Aldundian 2026ko apirilaren 17an.

Foru Aldundiko Lurralde Plangintzako Zerbitzuko zerbitzu teknikoek dokumentuaren edukia aztertu ondoren, uste da planteatzen den antolamendua zuzena dela hirigintza-helburuei dagokienez, eta, beraz, behin betiko onetsi behar da, eta hirigintza-araudia argitaratu behar da plana indarrean sartzeko.

Horiek kontuan izanik, dagozkidan eskumenak erabiliz, eta aplikatzekoa den legeria ikusita, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo.- Behin betiko onestea Getariako "IV - Balenciaga Hirigintza Eremuko g.00 lurzatiari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Berezia", 2025eko martxoko dokumentuak eta 2026ko otsaileko dokumentazio osagarriak osatua.

Bigarren.- Getariako Udalak ebazpen honen xede den plan berezia osatzen duten agiri guztiak bilduko dituen testu bategina bidaliko du, Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Erregistroan inskribatzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.



GHI-100/25-P08

Aginduaren aurka, interesdunek ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete zuzenean Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean, argitalpenaren biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi, argitalpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatua

Sin.: Azahara Domínguez Urtizberera



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Aprobación definitiva del PEOU relativo a la parcela g.00 del Área Urbanística A.U. IV - Bal